ITSASONDOKO UDALA

# GAZTERIA HAUSNARKETA

ITSASONDOKO HAUR-TXOKOAK GAZTE-LEKUAK

**Partaideak:**
Saileko arduradunak: Ane Plazaola, Jaione Castrillo eta Xabi Iturrioz
Begiraleak: Ainara Vega, Aiora Zurutuza, Maider Zabalua
Ongizate arduraduna: Maider Saenz de Navarrete
Eskola: Kristina Martinez, Leire Ezeiza eta Irune Aldatz
Guraso elkartea: Eneritz Arregi, Alaitz Artola eta Saioa Garbizu
Udaleko teknikaria: Izaro Intsausti

## Aurkibidea


Aurkibidea 1
1. Sarrera 2
2. Aurrekariak 2
3. Lanketa 3
4. Lanerako tresnak 7
5. Aurrera begirako proposamenak 8
…0-12 urte… 8
…12-15 urte… 11
…15-30 urte… 13
6. Eranskinak 14

## 1. Sarrera

Gazteria sailean berrantolaketa lanean ari gara eta epe luzera haurretatik hasi eta gazteetara bitarteko gurpila sortzea bada ere, egun dauzkagun baliabideak aintzat hartuz, haur, nerabe eta gazteen inguruan gogoeta egiten hasi gara.

Honenbestez, dokumentu honetan Itsasondoko haurretatik hasi eta gazteak bitarte barnebilduko dituen sailaren hausnarketa prozesua jasotzen da.

## 2. Aurrekariak

2019ko Urrian gaztelekua ireki da 12 urtez gorako nerabeentzat eta ostiralero elkartzen dira 17etatik 20etara.

2019an berriz, beste urrats bat eman dugu eta Kulturguneko espazioan 11-12 urtekoentzat ere zerbitzu bat eskaintzen ari gara.

11-12 urtekoen zerbitzu honekin kezkak sortu dira eta sortutako zalantzen harira, saileko gogoeta haratago egitera ausartu nahi genuke eta honetarako, zabaldu dugu deialdia begirale, guraso elkarte, ongizate eta eskolara.

Baliabideak

Ditugun **baliabideak** honakoak lirateke:

- Ludoteka:

<table>
<tr><th>Adin tartea</th><th>Ordutegia</th><th>Azalpena</th></tr>
<tr><td>0-10 urteko haur eta beraien gurasoak</td><td rowspan="2">Astean zehar 16:30etatik 19etara. Asteburuetan edozein ordutan</td><td>Haurrak gurasoekin egon behar dute</td></tr>
<tr><td>11-14 urteko haurrak</td><td>Haurrak bakarrik sartu litezke</td></tr>
</table>

- Gaztelekua

<table>
<tr><th>Adin tartea</th><th>Ordutegia</th><th>Azalpena</th></tr>
<tr><td>13-18 urtekoak</td><td>Ostiraletan 17etatik 20etara.</td><td>Begiraleekin egoten dira</td></tr>
<tr><td>14-16 urtekoak</td><td rowspan="2">Astean zehar 17etatik 20etara. Asteburuetan gehienez 00:00k arte, 22k aurrera isiltasuna.</td><td>Gurasoen txartelarekin sartu litezke</td></tr>
<tr><td>16 urtetik aurrera</td><td>Euren txartelarekin sar litezke</td></tr>
</table>

Ditugun **zerbitzuak** honakoak lirateke:

| Adin tartea | Azalpena |
|---|---|
| 12 urtetik gora | Gaztelekuan ostiralero 17etatik 20etara |
| 11-12 urtekoak | Kulturgunean ostiralero 17etatik 20etara |
| Haurrak | Bi hilabetez behin (azken ostirala) gaztelekukoek bideratutako ekintza |

## 3. Lanketa

Abiapuntua **nolako haurrak** izan nahi ditugun definitzea izan da.

Zoriontsuak
Autonomoak
Parte Hartzaileak
Itsasondoarrak
Aktiboak
Ekintzaileak
Sortzaileak
Irudimentsuak
Kritikoak
Errespetuzkoak
Jatorrak
Lagunak
Osasuntsuak

**Printzipioak**

Eskolak bere Hezkuntza proiektuan oinarritutako printzipioak geure egin eta herrira zabaltzeko ahalegina egitea beharrezkoa da. Lanketa honetan, gazteria sailera mugatuko dugu baina aurrerago, herriko beste eragile eta norbanakoetara ere iristea litzateke helburu.

1. Identitatea
2. Guztion herria
3. Aniztasuna
4. Haurra eta gazteak denaren erdigune.
5. Haur guztiak guztionak
6. Herri txikia gara.
7. Herriari begiratzen dioten haur eta gazteak nahi ditugu.

**Printzipioak barneratuz:** Printzipioak adibideekin landu ditugu

1. Identitatea

Danontzako, itsasondoarra, euskalduna

2. Guztion herria (konplexua ikusten da)

Egin aurretik denekin pentsatzea(ez dakigu zer daukagun).

3. Aniztasuna

Aniztasuna-Adin aniztasuna naturalki ematen den bezala jatorri ezberdineko aniztasuna edo aniztasun kulturala ez da ematen.

4. Haurra eta gazteak denaren erdigune.

Gureago sentitzen ditugu ezagutzen ditugunak. Izenak jakitea oso garrantzitsua da. Antolatzen ditugun gauzetan haurrak eta gazteak kontutan izan behar ditugu.

5. Haur guztiak guztionak

Izena jakitea garrantzitsua ikusten da. Famili txiki bat gara. Haur batzuentzako plaza "salbazioa" da.

6. Herri txikia gara.

Bere abantaila eta desabantailekin. Nortasuna ez da gauza berdina.

7. Herriari begiratzen dioten haur eta gazteak nahi ditugu.

Herriari begiratzen dioten haur eta gazteak nahi ditugu. Ekintzetan parte-hartzeko aukera izatea garrantzitsua ikusten da. Txikitatik udaletxearen antolaketa jakitea oso garrantzitsua ikusten da. Harreman hori era naturalen izan beharko luke. Herritik jaso eta herrira itzuli. Beraiek aurrera eraman behar dituzten ekintzak beraiek aurkeztea udaletxean.

**Printzipioak gazteria sailera egokituz:** Definizioa

1. Identitatea

Ordiziarako saltoa denek batera eman dezaten lanketa egin beharko litzateke.
Talde sentimendua, denak batera joan daitezela. Eta batera joan daitezen, publikoaren aldeko apustua egin beharko litzatekeela aipatu da.
Ez da erreza ikusten.
Norbere erabakia da.

2. Guztion herria (konplexua ikusten da)

Aukera denei eman behar zaie.
Etortzen ez direnen arrazoiak ez ditugu ezagutzen eta hor lanketa egin liteke.

3. Aniztasuna

Bi belaunaldi "begiraleekin"
Neska/Mutil kuadrilak euren kabuz

4. Haurra eta gazteak denaren erdigune.

Beraiei zuzendutako zerbitzua
(Datuak: gaur egungo erabilpena): Gaztelekuko sarbidea

5. Haur guztiak guztionak

Konfidantza dago etortzen direnen artean

6. Herri txikia gara.

Autogestionatua?

7. Herriari begiratzen dioten haur eta gazteak nahi ditugu.

**Printzipioen multzokatzea**

Printzipio horiek hezkuntza komunitateik haratago herrira zabaldu ahal izateko, lehendabizi "Gazteriako hausnarketa" foro honetan printzipioen esanahia barneratu eta landu dugu. Honenbestez, Itsasondoko beste eremuetara zabaltzeko, hiru talde haunditan multzokatu ditugu.

**1. Identitatea**

Euskaldunak gara, gure hizkuntza euskara da eta Itsasondon euskaraz bizi gara. Honez gain, itsasondoar sentitzen gara eta bere txikitasunean handi den herri honen partaide gara.

Amaitzeko, publikotasuna aldarrikatzen dugu, guztiontzako aukera den publikoa defendatzen dugu eta horren aldekotasuna mantenduko dugu, Urkipe herri eskolatik haratago ere.

**2. Guztion Herria**

Herrian bizi den herritar bakoitzarena eta guztiona da Itsasondo, guztiak kontuan hartzen gaituena eta denentzat irekia.

Adin-kultur-jatorri aniztasunak balioan jarriz, gizarte aldakorrean bizi gara eta guztiontzat izango den harrera herri orekatu eta inklusiboa dugu helburu.

**3. Herritik eta herriarentzat**

Txikitasunean handi da gure herria eta honi bere garrantzia aitortuz, gure txikitasunetik ditugun baliabideak modu egokian bideratu behar ditugu herritik sortzen den balioa, berriz herrira itzuli dadin.

Honengatik, eredugarri izan behar dugu eta herriko ekintzetan parte hartzen zein antolakuntzan txertatzen joan txikitatik ohitzen joan herritarrak.

Herri herritarrek egiten dute eta herritarrak protagonista diren herri aktibo eta parte hartzailea sustatu nahi dugu.

***********************

Honenbestez, aurrerantzean, ekintza kulturalen antolaketarako foro honetan landutako begirada eta oinarrizko printzipioen lanketa, herrira zabaltzean dago erronka eta horretarako taula hau lagungarri izango da.

## 4. Lanerako tresnak

| | | PRINTZIPIOAK | | |
|---|---|---|---|---|
| | | **IDENTITATEA** | **GUZTION HERRIA** | **HERRITIK ETA HERRIARENTZAT** |
| **NOLAKO HAURRAK?** | **ADIN TARTEA** | Euskalduna, Itsasondoarra, Publikoa (1) | Anitza, denok kontuan hartuko dituena, inklusiboa, adin/kultur aniztasuna, aldakorra, orekatua (2) | Txikitasuna, herriko baliabideak (3) |
| Zoriontsuak | **"0-12"** | Udalekuak (1+2) | Extraeskolarrak (2) | Erabakiguneak zabaltzea (1+2+3) |
| Autonomoak | | Eskola kirola (1+2) | | |
| Parte Hartzaileak | | Kurtso amaierako festa (1) | | |
| Itsasondoarrak | **Kopurua: 108** | | | |
| Aktiboak | **"12-15"** | Espazio bat (ludoteka + gaztetxe arteko adinarentzat) (1+2) | | |
| Ekintzaileak | | | | |
| Sortzaileak | | Udaleku itxiak (1+2) | | |
| Irudimentsuak | | Institutura bultzatzea (1+2) | | |
| Kritikoak | **Kopurua: 24** | | | |
| Errespetuzkoak | **"15-30"** | GAZTEAK ERABAKI ETA HERRITIK-UDALETIK BABESA ETA LAGUNTZA | | |
| Jatorrak | | | | |
| Lagunak | | | | |
| Osasuntsuak | **Kopurua: 94** | Alokairu soziala eta lana | | |
| | | | | |
| **Eragileak** | Guraso elkartea | Ongizate batzordea | Eskola | Gazteria saila |

## 5. Aurrera begirako proposamenak

### …0-12 urte…

Udalekuak

| Zer egin dezakegu? | Nork egin dezakegu? | Zer behar dugu? (Materiala, ekonomikoa) | Noiz? |
|---|---|---|---|
| Udaleku irekietan denak parte hartu dezaten lanketa egin<br><br>Atzerritarrekin zubi lana: komunikazioa, diru laguntzak… ) | Guraso elkartea + Urkipe eskola | | Egiten da |
| Udaleku ibiltaria antolatu herriko gaztetxoentzat | Begiraleak + Maider | | 2019-2020 |

Eskola kirola

| Zer egin dezakegu? | Nork egin dezakegu? | Zer behar dugu? (Materiala, ekonomikoa) | Noiz? |
|---|---|---|---|
| Eskola kirola Itsasondon planteatu:<br>• Informazioa jaso eta<br>• Baliabideak planteatu<br>• Talde mixtoa?<br>(3-6.maila bitartean) | Guraso elkartea + Urkipe eskola | | Hurrengo bilerarako? |

**Informazioa:**
Minimoa 6 (Zikloko neska mutilak nahastuta)
Borondatea ea badagoen guraso bileran
Infraestruktura (Lurraldeko sailean hausnartzen ari dira)
Kontaktua: Eneko Garmendia (Legorretakoa)

Extraeskolarrak

| Zer egin dezakegu? | Nork egin dezakegu? | Zer behar dugu? (Materiala, ekonomikoa) | Noiz? |
|---|---|---|---|
| Extraeskolarren aukeraz hausnartu eta herriko eskaintza baloratu. | Guraso elkartea + Eskola + Guztiok | | |

**Hitz egindakoa:**

Egun daukaguna:

- Guraso elkartea: zumba, musika
- Herrian: dantza, yoga, batukada…

(Eskola ereduarekin bat datozen extraeskolarrak izaten ahalegindu: sormena, irudimena…)

Extra eskolar mix-a

Herriz kanpoko ekintzak, herrian ordezkatu ditzakegu?

***<u>Herritik-Herrira</u>***

1. Herrian dagoen pertsona
2. Gaia jorratu eta jendeak gogokoa izanez gero, pertsona bat kanpotik ekartzeko aukera. Gazteriak honen kostua bere gain hartu dezake?

Zer nahi du herriak? Interesak identifikatu

Nola ahalbidetu herritar guztien parte hartzea? Ongizatean tratatzeko gaia.

Lehenik guraso eslkarteak landu.

***<u>Nolako extraeskolarrak nahi ditugu?</u>***

- Zentzu batekin, koherentzia mantendu behar dugu gure jardunean.
- Hezkuntzaren jarraipena.
- Hilabetean hein herritik herrira ekintza haurren nahiak kontuan hartuz (guraso elkarte-eskola)
- Planteamendua haurrek sortzea eta udal harremanak normalizatzea.

Erabakiguneak zabaltzea

| Zer egin dezakegu? | Nork egin dezakegu? | Zer behar dugu? (Materiala, ekonomikoa) | Noiz? |
|---|---|---|---|
| Foro ezberdinetan adin ezberdinetako herritarrak parte hartzen hastea. | Herri bizitzan haurrek parte hartzea | | |
| Foro ezberdinen egokitzapena aniztasunean lan egin ahal izateko | | | |
| **Hitz egindakoak:**<br><br>Ongizate, berdintasuna, aniztasuna…<br><br>Bileren antolaketa kontuan hartuta, plangintza bat diseinatu liteke hurrengo ikasturterako.<br><br>Haur eta nerabeen nahiak kontuan hartu eta ahalbidetu euren bidea egiten, erraztasunak emanez.<br><br>Abiapuntua haurren plangintza. Honen baitan batzorde batera edo bestera joango dira.<br><br>Errealitatea ikusi eta ikasiko dute. Eskolan lantzen denaren arabera, sortuko da. | | | |

Ludoteka

| Zer egin dezakegu? | Nork egin dezakegu? | Zer behar dugu? (Materiala, ekonomikoa) | Noiz? |
|---|---|---|---|
| Arautegiaren lanketa eta ezagutaraztea | Guraso elkartea-Udala | | |

Ostiraletako kulturguneko zerbitzua

| Zer egin dezakegu? | Nork egin dezakegu? | Zer behar dugu? (Materiala, ekonomikoa) | Noiz? |
|---|---|---|---|
| Ostiraletan ematen den zerbitzua | | | |

| **Landutakoa:** |
|---|
| Zaharragoekin hasi behar da lanketa.<br>Eurek ESKATU behar diote UDALARI eta eurek EMANGO diote HERRIARI.<br>Begiraleekin dinamika ondo pentsatu behar da.<br>Kulturgunea ordez, adin tarte honetarako beste espazio bat pentsatu behar da (Frontoi azpiko txokoa izan liteke) |

## …12-15 urte…

Publikotasuna

| **Zer egin dezakegu?** | **Nork egin dezakegu?** | **Zer behar dugu? (Materiala, ekonomikoa)** | **Noiz?** |
|---|---|---|---|
| Urkipe eskolan 6. maila amaitzen duten ikasleak Ordiziako Institurako hautua egin dezaten kanpaina egin | Idatzi bat egin eta bidali (Otsailean aurrematrikulazio garaian) | | |

Gaztelekua

| **Zer egin dezakegu?** | **Nork egin dezakegu?** | **Zer behar dugu? (Materiala, ekonomikoa)** | **Noiz?** |
|---|---|---|---|
| Ostiraletan ematen den zerbitzua | | | |

Lokal bat

| **Zer egin dezakegu?** | **Nork egin dezakegu?** | **Zer behar dugu? (Materiala, ekonomikoa)** | **Noiz?** |
|---|---|---|---|
| Lokal bat egokitu ludoteka eta gaztetxe arteko adinekoentzat | | | |

**...15-30 urte...**

Lana

| Zer egin dezakegu? | Nork egin dezakegu? | Zer behar dugu? (Materiala, ekonomikoa) | Noiz? |
|---|---|---|---|
| | | | |

Alokairu soziala (Lurralde antolamendua eta Ongizatean lantzen ari da)

| Zer egin dezakegu? | Nork egin dezakegu? | Zer behar dugu? (Materiala, ekonomikoa) | Noiz? |
|---|---|---|---|
| | | | |

## 6. Eranskinak

Egindako bilera aktak jasotzen dira amaieran:

2019-02-20 Bilera akta

2019-03-06 Bilera akta

2019-03-20 Bilera akta

2019-04-03 Bilera akta

2019-05-09 Taula

2019-06-06 Bilera akta

2019-06-26 Gazteria hausnarketa dokumentua